

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Sagardogileak, txotx garai berrirako prest

Asteartean egin zuten Alorrean denboraldi berriaren aurkezpen ofiziala. Andoingo eta Urrietako sagardogileak sasoi berrirako prest dira / 2-3

Etxean bezala, Amazonian

David Segurado urnietarraren eta haren familiaren esperientzia amazoniar lurretan / 10-11

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldi bikoitza, larunbat honetan Basteron / 14

Nieves Gil eta Lucia Guichot alpinistekin elkarriketa, Amaia Agirrerren heriotzaren urteurrenean / 12



Urtero legez aurten ere gure Sagardotegiko ateak irekiko ditugu sagardo berriaz goza dezazuen ohiko menuaz lagundurik

Trenez etortzeko oso egokia, Urrietako Renfeko geltokitik 4 minutura baikaude oinez



Txotx irekiera: Urtarrilak 24, asteazkena
Erreserbak: 943 554 917 - 650 266 925

Galarraga baserria, Lategi auzoa 5, URNIETA. @altuna_sagardotegia



Iñigo Etxezarreta abeslariak ireki du txotx-denboraldia. AIURRI

Martxan da txotx garai berria

Aurtengo txotx-denboraldiari hasiera eman zioten joan den asteartean Astigarragan. Ggonbidatu berezia Iñigo Etxezarreta izan zen, ETS taldeko abeslaria. Bertsotan aritu ziren Agin Laburu eta Sustrai Colina

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hemen da, badator, upeletik behera. Edalontzia kolpatu, aparra atera eta lagunekin topa... Txotx! "Bertako plazerra" lelopean, abian da sagardo-denboraldi berria, Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak eta Sagardoaren Lurraldeak sustatuta. Joan den asteartean egin zuten irekiera-ekitaldia, Astigarragan. Aurten, Iñigo Etxezarreta ETS musikataldeko abeslaria izan da gonbidatu berezia eta berak dastatu du lehen sagardo-zurruta: "Gure Sagardo Berria!".

Eguerdiaren eman zioten hasiera ekitaldiari Erribera Kulturagunean, 2023ko uztaren nahiz sagardo berriaren ezaugarri nagusiak eta sagardo-sektorearen nondik norakoak azaltzeko asmoz. Bertan, Iñigo Etxezarreta musikaria izan zen protagonista nagusia, eta, harekin batera, zenbait

ordezkari igo zen oholta gainera, besteak beste: Xabier Urdangarin Astigarragako alkatea, Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia, Azahara Dominguez Mugikortasuneko, Turismo eta Lurralde Antolaketako diputatua, Jesus Garcia de Cos Turismo eta Merkataritzako sailburuordea, Bittor Oroz Nekazaritza sailburuordea, Maider Lopetegui Fruiteleko Lehendakaria eta Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko ordezkaria eta Oihana Gincerain Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko presidentea.

"EZ DUGU PORTAERA MATXISTARIK ONARTUKO. PARRANDA EZ DA AITZAKIA"

Adierazpenen artean, aipagarriak, Astigarragako alkatearenak. "Mimo eta arreta handiz" ondutako sagardoak gozatzeko gonbidapena luzatu zuen. Era berean, errespetua oinarri, arduraz jokatzeko deia ere egin zuen: "Jende andana bilduko da, eta horrek, tarteka, eragozpenak sortzen ditu. Ez dugu portaera matxistarik, homofoborik, arrazistarik edo antzekorik onartuko. Parranda ez da aitzakia". Horrela, Hernaniko Udalarekin elkarlanean, sentsibilizazio-kanpaina sortu dute.

Sagarrondoak, "aukera berriak"

Euskal Herrian, euskaraz gehien entzuten den taldea omen da En Tol Sarmiento. Bada, bertako abeslaria, Iñigo Etxezarreta izan da, aurten, Sagardo Berriaren Eguneko protagonista berezia. Ilusio handiz hartu zuen gonbi-

Denboraldi hasierako ekitaldia



Astigarragan dantza taldea eta Txirriskla Txistulari banda, elkarrekin. AIURRI

Dantza Sagardotegiaren eskaini zuten herriko Astigarragan dantza taldeak, irekiera-ekitaldira hurbildu zirenen aurrean. Ondoren, Iñigo Etxezarreta ETS taldeko kantaria gonbidatu zuten soka-dantzan parte hartzera.



Sustrai Colina eta Agin Laburu, bertsotan. AIURRI

Bertsoa Sagardoari estuki lotuta dago Agin Laburu, Ipintza sagardotegiaren nagusietakoa baita. Historikoki, bertsoa eta sagardoa ondo uztartu dira. Umorea eta giroa erantsi zieten aurkezpen-ekitaldiari bi bertsolarien errimek.



Erakundeetako ordezkariak, irekiera-ekitaldian. AIURRI

Adierazpenak Lehen sektorean sailkatuta dago sagardogintza, baina, era berean, indarra hartzen ari da turismoari loturiko jardueraren modura. Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundia eta Hernaniko udalak babesa agertzera hurbildu ziren Astigarragan.

Sagardogile ugari, denboraldi berriaren irekiera-ekitaldian



JUANJO URRUZOLA
ELUTXETA SAGARDOTEGIA

"Aurkezpen-ekitaldi polita egin dugu, eta sagardo berriaren xehetasun asko eman ditugu. Sagardotegian gozo-goza egon gaitzke, liskarrik izan gabe. Ondo pasatzeko gunea da. Gure atek zabalik daude"



JON MIKEL ARRUABARRENA
MIZPIRADI SAGARDOTEGIA

"Egun garrantzitsua da gaurkoa. Erakundeetako ordezkariak bertan dira, sagarrondoak lantzeko egin duten apustua tarteko. Eta guk denboraldi berria maitasun osoz prestatu dugula erakusteko".



XABIER ALTUNA
ALTUNA SAGARDOTEGIA

"Ekitaldi bateratua da gaurkoa, oso ondo joan dena. Astigarraga eta Hernanirekin batera Urnieta sagardoaren lurraldea da eta, aurtan, Udalak sustatuta, denboraldi berriaren irekiera egingo dugu Urnietan bertan".



IBON ABURUZA
ABURUZA SAGARDOTEGIA

"Sagardoa aurtan oso ona dago. Itxaropen ona dugu, sektorean. Gurean, Aburuzan, jendea erreserbak egiteko deika ari da eta ilusio handiz gaude. Sagardoa probatzera hurbiltzeko gonbidea luzatu nahi diet, denei".



Sagardoa prest da. AIURRI

Aurtengo sagardoaren ezaugarriak

Oihana Gainerain Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko presidentek eman zituen xehetasunak, aurkezpenean: 2023an jasotakoarekin, 12 milioi litro inguru sagardo ekoiztu dira Euskal Herrian, horietatik 4 milioi Euskal Sagardoa Jatorri Izendapena egiaztapenarekin. Orotara, 50 sagardotegi ari dira martxan Hego Euskal Herrian: Araban, bi; Bizkaian, hiru; eta, Gipuzkoan, 45. Hala, 6 milioi kilo bildu dira, 2023ko uztan, Euskal Sagardorako. Sagardoaren izaerari dagokionez, rokorrean, iazkoarekin alderatuta, alkohol graduazio eta gorputz txikiagoa dute sagardoek, eta oso lurrintsuak dira.

dapena, taldearen musika-ibilbideari "nolabaiteko aitortza" baita, aurkezpen-ekitaldian adierazi bezala: "Ospakizun baten inguruan, jendea batzen dute sagardotegiei. Hala, gure taldeko kontzertuetan ere horrela gertatzen da. Era berean, egunerokotasunean behar ditugun zorientasun-pilula horiek oparitzen dizkigute, bai musikak, bai sagardoak".

Jarraian, ezusteko atsegina jaso zuten gonbidatuek, izan ere, Antton Telleriaren baka-rrizketa batez gozatzeko aukera izan zuten, irekiera-ekitaldia borobiltzeko. Behin sagardodenboraldiari umore eginda, ohiturak aginduta, sagarrondoa landatu zuen Etxezarretak Kontxa Etxeberrira plazan. Bien bitartean, bertsoan aritu ziren Agin Laburu eta Sustrai Colina.



Jokin Mariezkurrena Alorrenea sagardotegiko semea, lanean. AIURRI

Agin Laburu:
Nahiz Inigok eduki mahatsaren neurriak beso zabalik hartu du gure herriak. Hartu atxurra eta makurtu gerriak sagarrondoak dira aukera berriak.

Sustrai Colina:
Nahiz ta inguruotan dena den zimendu sagarrondo gazteak ai ze luzimendu. Inigoren artea eukiko bagenu, atxurrarekin ere musika jotzen du.

Alorreneako upelak

Alorrenea sagardotegian eman zioten jarraipena irekiera-ekitaldiari. Bertan, Erbitegi Etxeberrri herriko txalaparta-taldeak ikustaldia eman ondoren, sagardantza plazaratu zuen Astigardantza-taldeak, Txirriskla txistulari-bandaren doinupean. Hala, dantza-sokan parte hartzeko gonbita luzatu zioten ETSko abeslariari. Upelaren aurrean ipini, eta "Gure Sagardo Berria" esanda, lehen upela probatu zuen Etxezarretak Jokin Mariezkurrena sagardotegiko semearen eskutik. Hemen da, irakurle, 2024ko sagardo denboraldi berria.

Denboraldi berriarekin bat eginez, Aiurrik Kantu Liburuxka argitaratuko du datozen egunetan. Upelen artean, kantuan aritzeko aproposa.

Txotx 2024

Laster Aiurriko Kantu liburuxka eskuragarri

Aiurriren eskutik, **euskal kantagintzaren onena argitalpen ederrean!**

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



IN MEMORIAM

Ion Izagirrereren heriotzaren bigarren urteurrena



Laguntaldeak mendiaren haren omenezko plaka ipini du. AIURRI



Mendian jarritako oroigarria, eta atzean haren afitxa. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Urtarrilaren 3an bete ziren bi urte Ion Izagirrek motor istripuan bizia galdu zuela. Bigarren urteurrena bete da aurten, eta pasa den urtean egin bezala, bere koadrila eta lagunek omenaldi xume bezain goxoa prestatu zioten Urnietako gazteari. Pasa den larunbatean egin zuten hitzordua, eta naturak egun hotz baina eguzkitsuarekin hartu zituen Ion gogoratzera bertaratu ziren guztiak Besabin.

Hogeita hamar bat laguneko multzoa Adarramendira igo zen aurrena, urnietarren mendi

kuttuna, eta Ion Izagirrek hainbeste maite zuena. Aurreko egunetako negu eguraldi gordinak utzitako elur eta izotz hondar batzuk zapaldu ondoren, taldea Izagirrereren heriotza gogoratzen duen txokora bertaratu zen, Aballari eta Arlegor haitzen artean. Iaz landatutako gorostia sendo dagoela ikusi zuten lagunak, tinko eutsi diola neguari, Nepalgo banderatzokoen haizeari bezala.

Kolore urdinak zerua ordezkatzen du; zuriak ura, gorriak sua, berdeak airea eta horiak lurra. Txoko hartan presente zeuden

elementuak, denak. Lagunek Ion kidearen erretratu dotore bat jarri zuten banderatzokoen eta oroigarriaren artean, eta txoko hura maitasunez zipriztindu. Aballarri hormaren magalean, eta itsasoari begira geratuko da Ion betiko, Benito Lertxundiren koplak ezaguna lagun.

ABALLARRIREN MAGALEAN, ETA ITSASOARI BEGIRA GERATUKO DA ION BETIKO

POSTONTZIA

ETXEBIZITZA SINDIKATUA
BETERRI-BURUNTZA

Oinarrizko bizi-bitartekoak bermatu

Buruntzaldean, energia enpresa handiek 100.000 euroko irabazi garbiak dituzte egunero. Maximo historikoetan dagoen energiaren prezioen gorakadak are zailagoa bihurtu du langile familia askorentzat argia edo gasa bezalako oinarrizko bizi bitartekoak ordaintzea.

Era berean, azken hilabete hauetan hamarnaka familiari euren gas edo elektrizitate hornidura moztu diete gure eskualdean, eta energia hornidurarik gabe utzi dituzte. Egoera honen aurrean, eta neguko hotz betean aurkitzen garen honetan, ekimen hauek antolatuta ditugu datozen asteetarako:

- Hilaren 28ra bitarte manta eta neguko arropa bilketa.
- Otsailaren 7an fakturen, tarifa moten eta laguntzen inguruko hitzaldia.
- Otsailaren 14an aholkularitza bulegoa hornidurekin arazoak dituzten pertsonentzat. Informazio zehatzagoa Buruntzaldeako Kontseilu Sozialistaren sareetan zabalduko dugu. Proletalgoak bizi-bitarteko oinarrizkoenak ere ez ditu bermatuta kapitalismoan, eta beraz, denontzako kalitatezko bizi-baldintzen alde antolatzea dagokigu.

IN MEMORIAM

Luis Fraca, Udal Bandako zuzendaria



Luis Fraca eta Alicia Sanz emaztea, 2016ko Kaletxikiko jaietan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Luis Fraca Royo 94 urterekin hil da. Andoingo Udal Bandako zuzendaria izan zen, 1958 eta 1972 urteen artean. Udal musika eskolako zuzendari ere izan zen, 1989ra bitarte. Abesti ugariaren konposatzailea izan zen, eta andoaindarrentzat guztien artean ezagunena "Andoain" izenekoa da. Egun, pieza hori Bandak edota Gora Kaletxiki Bandak jotzen jarraitzen dute.

Gora Kaletxikik antolatuta, hain zuzen, Luis Fracak Kaletxikin omenaldia jaso zuen. 2016ko San Pedro jaietan izan zen.

Fraca Zaragozako Ainzon herrian jaio zen, 1929. urtean. Bost urte zituela Zarautzera joan zen bizitzera, familiarekin batera; bertan bizi izan zen geroztik ere. 18 urte zituela piano eta armoniako musika-ikasketak amaitu zituen Donostiako Kontserbatorioan, eta Sestao eta Sos del Rey Catolicoko Musika bandak zuzendu ostean, 1958an, oposiziolehiaketa bidez, Andoingo bandaren zuzendaritza-kargua hartu zuen. Andoaindar askorentzat,

beraz, aski ezaguna zen Fraca jauna.

Makina bat musika-pieza sortu zituen, haietako asko bere gozamen eta entretenimendurako izan ziren, aitortu zuenez.

Amaitezina da sortutako abestien katalogoa, era guztietara interpretatzeko piezez osaturikoa: musika bandarako, kamera musikarako, pianoarako, biolontxeloarako... Itzal luzea utzi duen musikaria izan da, Andoainen.

Andoingo Udalak, esker ona

Andoingo Udalak mezua zabaldu zuen, asteburuan bertan: "Zure pieza gogoangarriak geratuko dira gurekin. Eskerrik asko andoaindarrak musikan murgiltzeko egindako lanagatik. Arin bekizu lurra".

1958 ETA 1972 URTEEN ARTEAN ANDOINGO UDAL BANDA KO ZUZENDARIA IZAN ZEN

BANDOA

ANDOINGO UDALA ANDOAIN

Arratoi zabalkundea ekiditeko hainbat gomendio



Andoingo Udala jakitun da herriko hainbat tokitan arratoiekin dugun arazoaz. Horregatik, arazoa bideratzeko asmoz, talka-plan bat jarri dugu martxan. Gure udalerrian arratoi-garbiketaz arduratzen den enpresarekin lanean ari gara, osasunerako kaltegarria den arazo desatsegina kontrolatzeko.

Baina, ez da nahikoa. Andoingo herritar guztien laguntza behar dugu. Badira jokabide eta ohitura batzuk arazoa areagotu eta izurriteak kontrolatzeko teknikarien lana zailtzen dutenak.

Horregatik, gomendio hauek betetzea komenigarria da, guztion onerako:

- Zabor guztiak dagokion edukiontzian uztea. Ez utzi inoiz zaborra lurtean, eta erabili zakarrontziak.
- Animaliei kalean jaten ez ematea. Bide publikoan katuak, usoak edo bestelako animaliak elikatzea osasunaren kalterako ariketa da, eta horrek arratoien populazioa handitzea eragiten du udalerrian zehar.
- Ez bota janari-hondarrik komunetik edo harraskatik. Arratoiak gure inguruetik urruntzeko eta herri garbi eta osasungarri bat mantentzeko helburu komuna lortzeko bide bakarra da jokabide horiek errespetatzea, brigaden eta arratoi-enpresaren lanarekin batera.

POSTONTZIA

G2 PROIEKTUAK KALTETUTAKOEN PLATAFORMA ANDOAIN

Andoingo herritarren haserrea

Aurreko asteburuan, Bazkardoko korapiloa konpontzeko proiektua dela eta, DVk erakundearen arteko talkaren berri eman du.

Bertan adierazten zenez, "gutxienez, egoera korapilatsua da, EAJ-PSE koalizioak gobernatzen duen Aldundiak argitzen duelako errepideetako eskumena forala dela, eta, beraz, Estatuak eta Udalek ez dutela beren esku N-1 edo A-15 bezalako proiektua onartzeko edo gauzatzeko ahalmenik".

Albistea osatzeko esan beharko litzateke Garraio eta Mugikortasun Ministerioak 4 milioi euroko dirulaguntza eman diola Arabako Foru Aldundiari, EAJk kudeatu duena, Argantzunen Zadorra ibaiaren gainean zubi berri bat eraikitzeko eta A4345 errepidearekin Tuyora lotzeko trazadura berriko errepide baten bidez.

CII proiektuak kaltetutakoaren plataformaren iritziz proiektu alternatiboa hobetzen laguntzen duen inbertsio publiko oro ongi etorria izango da, datorren lekutik datorrela. Ongi etorriak Madrilan kudeatutako 476.000 euroak, Estatuako Aurrekontu Orokorraren Legean sartuta daudenak, Arabako Foru Aldundiak 4 milioi euroko kudeatu dituen bezala.

Plataformak SERIOTASUNA eta IKUSPEGI-ALTUERA eskatzen ditu alternatiba lantzeko orduan, A-15 eta N-1 errepideen arteko lotunea Andoain parean konponduko duen alternatiba lantzeko orduan, izan ere, eskumenak ezin direlako herritarren gainetik egon zein probintziatan jaiotzen den arabera, eta ezin dira herritarren beharren gainetik egon.

Aldundiko Azpiegitura Sailari ikuspegi altuko inbertsio baten alde egin dezala eskatzen diogu, andoaindarrei benetan ENTZUN diezaiela, ALTERNATIBA batek eskain ditzakeen onuren mailan egon dadila eta errepide-sare orokorrari ekarpena egin diezaiola, alde batetik, Urumeako autobia (Astigarragan, Hernanin eta Urnietan garatua) burutzea ahalbidetuko duelako eta, bestetik, erungo N-1 errepidea Andoainen kanporatzea, tokiko trafikorako azpiegitura askatuz.

Ez izan liskarrik siglen artean!

Aski dira botere estrategiak!

Eskumenak inposatzeko joeraren aurrean nahikoa da!

GORA ETA BEHERA



Zerbitzu berria

Berriki, hainbat agiri eskainiko dituen makina ipini dute Andoainen. Herritar guztiak sarbidea izango dute Nortasun Agiria edota B@kQ ziurtagiria sartuta. Eskainiko dena:

- Ordainagiriaren kontsulta eta inprimaketa.
- Ordaindu gabe dauden ordainagiriaren kontsulta eta inprimaketa.
- Errolda ziurtagiriak.
- Ordainagiriaren ordainketa.
- Sarrera erregistroa egiteko aukera.

Erabilera erakusteko laguntzaile bat izango da, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:00etara



Anbrosia Olabide eraikinean, eguneko zentroaren kanpoaldean jarri dute makina. UDALA

400 sinaduratik gora, lehen asteburuan

Herriko hamazazpi talde eragilek Aiurri astekariaren aldeko sustengu-sarea osatu dute, eta, azken egunotan, Aurrera Markelekin elkarteak batu zaie. Aiurri astekariari ezarri dioten 10.000 euroko murrizketa atzera botatzea eskatzen diote Gobernu Taldeari

Erredakzioa URNIETA

Sinadura-bilketari ekin zioten hilaren 12an, Aiurriri ezarritako murrizketarekin konforme ez daudela adierazteko. Negu giroko asteburua izan zen aurrekoa, eta, halere, ehunka herrikide hurbildu ziren kalean jarritako mahaian sinadura ematera. Ekimena datorren asteburura bitartekaluzatuko da. Taberna eta merkatalguneetan jarritako afitzez gain, honako hauek asteburuan sinadura emateko hitzorduak:

- Urtarrilak 19, Zaldundegi plazan, 19:00etik 21:00etara.
- Urtarrilak 20, toki berean, 12:00etatik 13:30era.
- Urtarrilak 21, Guria aurrean, 12:00etatik 13:30era. San Joan plazan, 11:30etik 13:00era.

Babesa adierazi duten eragileak geroz eta gehiago dira

Dagoeneko hemeretzi dira babesa eman duten taldeak: Aballarri guraso elkarteak, AEK, Aurrera Markelekin, Bagara feministak, Bertso eskola, Egape Dantza Taldea, Elkartasun Ekimena, Etxeberri auzo elkarteak, Inñistorra Euskaltzaleak, Manttala, Onbizi, Poxta Zahar, Sorginak, SurperH, Txanbolin, UKE, Urnietako Mugimendu Sozialista, Xoxokako auzo elkarteak eta Zanpatuz mendiko taldea.



Ostiral iluntzean, urtarrilak 12, abiatu zen ekimena. AIURRI



Argazkia aurreko igandekoa da. Datorren asteburuan jarraituko du ekimenak. AIURRI

Aiurri indartzeko eta iraunarazteko harpidetza-kanpaina




HARPIDEDUN GEHIAGOREN BEHARRA DUGU

Izan zaituz harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain Aiurri iraunarazteko ezinbesteko laguntza eskainiko duzu.

Harpidetza-orria on line betetzeko aukera: aiurri.eus/bazkidetu/

Hemeroteka



AITZIBER SALINAS URNIETA

2004ko urria:

Argi dago oraintxe, aktualitateari dagokionez, AEBetako hauteskondeek ez gaituztela urnietarrok bakean utziko, parte hartzen utziko ez diguten arren. Gasolindegian jasaten dituguk AEBetako atzerri politikaren ondorioetako batzuk. Ez dut zalantzan jarriko nazioarteko kontuek duten eragina. Baina, globalizazioa nagusi den honetan, herri izaeraren oihua mutu gera ez dadin lan egiten duten eragileak gero eta gehiago dira. Gero eta gehiago hurbiltasuna eskatzen dugunak.

Urnietar gisa, oso garrantzitsua iruditzen zait herrian gertatzen denaren edo antolatzen denaren berri izatea. Iritzi, ekitaldi zein gertaeren berri izatea, urnietarrok, Aiurrin, gure plaza aurkitzea. Eta zer esanik ez, honezkerok konturatuko zinen Aiurri ez dagoela txineraz idatzia. Normalizaziorako bidean beste urrats bat da, zalantzarik gabe, etxean eta doan jaso duzun ale hau ere. Hutsune bikoitza bete nahi du Aiurrik, Urnietako informazio plurala eman nahi baitu, euskara ulerterraz baina zuzenean.

Zoritxarrez, badakigu Urnietan euskara ez dagoela normalizatuta; euskararen normalizaziorako plan guztiek esku artean duzun aldizkaria bezalakoen beharra azpimarratzen dute, baina euskarazko produktuak defizitarioak dira oraindik. Aiurri bera ere, udalak laguntza eman zain dago, eta Aiurriren biziraupena laguntza horren araberakoa ere izan daiteke.

Baina Aiurrik Urnietan jarraitzea zure esku ere badago. Bada kontaguz, zure ahotsa ere entzun dadin nahi dugulako.

Aiurri? Nik bai, behintzat!



Mozioa aurkeztu dute Urnietan

Aiurriren aldeko sustengu-taldearen babesa du, hilaren 25eko plenoan eztabaidatu asmoz

Erredakzioa URNIETA

Abenduaren 21eko Udala batzaraldian Gobernu Taldeak 2024ko Udala aurrekontuari onospena eman zion. Besteak beste, ofizial egin zen 10.000 euroko murrizketa Aiurri astekariarentzat. Galde-erreguen atalean, Jon Unanue Inñistorra euskaltzaleen biltzarreko eta Aiurri astekari-ko sortzaileetakoak iragarri zuen udalera itzuliko zirela, bidezkoa iruditzen zaion dirulaguntzaren eguneraketa eskatuz. Esan eta egin. Urteko lehen plenoa hilaren 25ean izango da, eta honako talde hauek babestu dute mozioa: Aballarri guraso elkarteak, AEK, Aurrera Markelekin, Bagara feministak, Bertso eskola, Egape Dantza Taldea, Elkartasun Ekimena, Etxeberri auzo elkarteak, Inñistorra, Manttala, Onbizi, Poxta Zahar, Sorginak, SurperH, Txanbolin, Urnietako Mugimendu Sozialista, Xoxokako auzo elkarteak eta Zanpatuz.

Urnietako Udaleko Gobernu Batzarrak udal aurrekontuetan kreditu aldaketa onartu deza keela, horixe defendatzen da mozioan. Bestela, epe erdira hedabidearen etorkizuna kolokan egon daitekeelako: "Laguntza eguneratzen ez bada, denbora gutxi baino lehen Aiurrik jai izango du. Ez dugu uste Urnietako Udalak halakorik nahi duenik". Mozioan ere aipamena egiten zaio herriko beste elkarte batzuk 2024an pairatuko duten murrizketari.



Pieza guztiak konpondu eta ordezkatzan ditu Bertakok, igogailuaren bizitza erabilgarria iritsi arte. BERTAKO

Bertako: igogailuetan gertukoa eta berezia

Igogailuen instalazio- eta mantentze-lanak egiten ditu Bertako enpresak. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan. Duela 9 urtetik ari da zeregin horretan, enpresa moduan. Dena den, lantaldeak aurretik dihardu sektorean. Esperientzia handiko taldea da

Bertakok 2.700 igogailu baino gehiagoren mantentze-lanak kudeatzen ditu Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Gehienbat, igogailu marka guztietako mantentze-lanak egiten ditu Bertakok. Eta pieza guztiak konpondu edo ordezkatzan ditu, igogailuaren bizitza erabilgarria amaitu arte.

Zerbitzu gardena

"Berezia da gure enpresa, sektoreko beste enpresa batzuekiko ezberdin", dio Bertakoko Iban Sanchezek, Bertako enpresako zuzendari komertzialak. "Bezeroari bideratutako enpresa da Bertako. Zerbitzu gardena eskaintzen dio jardueraren erdigunean dagoen bezeroari", dio; gardentasuna eskaini nahi du, "berez opakoa" den igogailuen sektorean. Horregatik, sorreran, sektorea ondo aztertu ostein, gustuko ez zituztenak albo atera utzi eta zerbitzuak beti bezeroari, herritarrei, etxebizitza komunitateei, eskaintzen hasi ziren.

24 orduko benetako zerbitzua

Marka askotariko igogailuen mantentze-lanak -batik bat-; igogailuen

instalazioa; edota zaharkituta dauden igogailuen ordez berriak jartzea. Horiek dira Bertakok egiten dituen lanak eta eskaintzen dituen zerbitzuak. Eta hori guztia, ustekabeko konponketa lanei uneoroko erantzuna emanda.

Bertakok bezeroekin -etxebizitza komunitateekin- sinatzen dituen kontratuetan, "24 orduko benetako mantentze-zerbitzuak" eskaintzen ditu, urteko 365 egunetan. "Iraunkortasun klausulak edota bestelako zigor klausulak ezarri barik". Hau ez da ohikoa sektorean, Iban Sanchezek ustez. "Beste enpresa batzuek 24 orduko mantentze-zerbitzuak eskaini bai, baina, gero, benetan ez dute 24 orduetan zerbitzu ematen. Guk benetako 24 orduko zerbitzua eskaintzen dugu; izan asteburu edo ordu txiki". Horregatik dira Bertakoren bereizgarriak "gertutasuna, gardentasuna eta bezeroarekiko konpromisoa".

Sorreran enpresa txiki izatetik bere jardun eremuan enpresa esanguratsua izatera pasa da Bertako. 40 langilez osatutako lantaldea osatzen du Bertakok.

Prezioaren garrantzia

Prezioa da Bertakoren beste bereizgarri bat. Enpresa lehiakorra da, alde horretatik ere. Esaterako, orotariko zerbitzua eskaintzen duen enpresa batek BEZik gabe "150 eta 250 euro bitartean kobra zezakeen hileko gu hasi ginenean, duela 9 urte. Eta gu hasi ginen zerbitzu hori 100-115 eurotan eskaintzen. Eta gaur da eguna galitzen ditugun bezero gutxiak eskaintzen dutena zerbitzu hori 65-75 eurotan". Sanchezek dio kompetentziako enpresek leporatu ziotela sorreran prezioak "botatzea" eta gaur dela eguna Bertakoren aurretik eskaintzen zuten prezioaren erdian dabilzana.

Euskarari garrantzia

Enpresa euskalduna eta euskaltzalea da Bertako. Ahalik eta zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditu. "Edozelan ere, onartzen dugu gure teknikari guztiak ez direla euskal hiztunak; batzuk badira; beste batzuk ez. Baina euskararekin konprometituta gaude eta ahal dugun zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditugu. Adibide bat jartzearen, Tuteran aurrekontuak



Igogailuen mantentze-lanak egiten ditu Bertako enpresak. BERTAKO

Aplikazioa, bezeroen zerbitzura

Gaur egungo teknologiak darabiltza Bertako enpresak, eskaintzen duen zerbitzua eraginkorra izan dadin.

Bertakok eskuko telefonoetan erabiltzeko aplikazio bat ere badu. Honako hau ere bezeroei begira. Bezeroaren eta Bertakoren arteko harremanetarako ez ezik, Bertakoko bezeroak beste gertuko gremio batzuekin

harremanetan jartzeko ere balio du aplikazioak. "Esaterako, etxebizitzan komunitateko arduradunak arazo bat baldin badauka eta igeltsero, argiketari, arotz, iturgin edo bestelako gremioren baten premia badu, aplikazioak ahalbidetzen du haren inguruan jarduten duten gremio horiekin harremanetan jartzea", dio Sanchezek.



Bertako aplikazioa. BERTAKO

Lehtasunezko tratua

Hartara, bezeroei zerbitzu ona eskaintzeaz gain, tokiko negozioiei ere laguntzen die. Sanchezek esanetan, "larrialdi egoeretan dauden eta momentu batean konponbide azkarra behar duten herritarrei zerbitzua eskaintzen zaie, baina ez larrialdi prezioen truke".

Lehtasunezko tratua eskaintzen diete gremioek herritarrei, Bertakoren aplikazio horren bidez.

eta fakturak euskaraz eta gaztelaniaz egiten ditugu". Beste konpromiso batzuk ere baditu euskararekiko: Korrikaren babeste izatea edota euskarazko tokiko hedabideetan publizitatea egitea.

Gizartearekiko erantzukizuna

Euskararekiko ez ezik, bertako eta gertuko beste jarduerak batzuekiko ere badu erantzukizuna Bertakok, kirolaren edo kulturaren alorretan, esaterako. Tokikom, Arrasate Musikal, Hondarribia Arraun Taldea, Gaztedi Rugby edota Iker Vicente babesten ditu, besteak beste. Horretaz gain, emakumearen parte hartzea kirolean eta kirol egokituia sustatzen duten erakundeak ere babesten ditu, diruz lagunduz. "Halako erakundeen atzean dauden pertsonak, jeneralean, izan ohi dira pertsona inplikatuak, diru aldetik ez horren aberats direnak, nahiz eta beste

aberastasun batzuk izan. Haien ondoan egotea gustuko dugu eta halako proiektuak diruz laguntzen ditugu", dio Iban Sanchezek.

Bertakoren zuzendari komertzialaren ustez, gainera, erantzukizun horrek Bertakoren marka indartzen laguntzen du. "Bertakoko bezeroa gure bezero izateaz harro egon dadila nahi dugu; zerbitzu ona eskaintzeaz gain eta haren igogailua matxuratzen den bakoitzean azkar erantzuten duen enpresa izateaz gain, beste balio batzuk, harekin bat datozenak, dituen enpresa garela ikustea".

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

- Araba 945 712 822
 - Bizkaia 946 523 935
 - Gipuzkoa 943 903 450
 - Nafarroa 848 870 917
- www.bertako.eus



Goiburu-Xoxokako eskolan egin zituzten Urnietako biktimekin izandako bilera gehienak. Mintzatzeko "espazio eroso eta goxoa" topatu nahi izan zuten ekimenaren sustatzaileek. AIURRI

Urnietako bizikidetza-taldearen ibilbidea

Urnietan ideologia, sentsibilitate eta biografia ezberdinetako pertsonak osatzen duten Urnietako Bizikidetza Taldeak, 2016an abian jarri zuen ekimenaren inguruko txostena kaleratu du, berriki

Xabier Lasa ANDOAIN

Urnietarrak izanik eta bakegintzaren ganean lan egin nahi izanik, ardura partekatu batek batuta ekin zioten ekimenari: bakearen, bizikidetzaren eta memoriaren lanketa. Zehazki, Urnietako bizikidetzari beren ekarpena egiteko asmoa eduki zuten buruan, hasieratik.

Konstatazio bati eutsi zioten hasteko eta behin: "Urnietan, beste hainbat herrietan bezala, askotariko sufrimenduak bizitako pertsonak bizi dira. Bizilagunak izan arren, ordea, askotan, ez ditugu ezagutzen sufrimenduzko esperientzia horiek. Beste batzuetan, ezagutu arren, ez gara hurbildu geure elkartzuna adieraztera, urteetako indarkeriak eta tentsioek lubakiak sortu baitituzte geure artean".

Pausu bat harago joanda, askotariko sufrimenduak pairatu dituzten herrikide horiek aitor-

tza eta erreparazioa merezi dutela uste irmoa zeukaten.

Prozesu horri ekin aurretik, baina, taldeko kideek formakuntza eta gaitasunen garapena landu behar izan dute urte haue-tan guztietan. "Biolentziaren biktima izan direnekin eta sufritu dutenekin biltzeko, talde moduan eta pertsona gisa ere giza eskubideen arloan formakuntza jaso behar izan dugu eta inguruan bizi izan dugun biolentziaren nondik norakoen gaineko gogoetak ere sustatu eta landu ditugu".

Erantsi dutenez, "beste esperientzietatik ere entzute-aktiboak, prozesu errestituatiboak eta errekonozimenduak egiteko formulak eta metodologiak ikusi eta ikasi behar izan ditugu".

Aipatutako gogoeta horiek bultzatuta, eta formakuntza eginda, 2019an, sufrimendu motaren bat jasan duten pertsonen

bizipenak entzuteko helburua finkatu zuen taldeak, eta “Sufritu duten urnietarrak entzunez” ekimena martxan jarri zuen.

“Sufritu duten urnietarrak entzunez” ekimena

Ekimenaren bidez entzuteko gune segurua eskaini nahi izan zuen Bizikidetzaren Taldeak, “errekonozimendu pribatua eskainiz hautsitako harremanak berreskuratuzeko”.

Hiru ideia izan zituen oinarri, lanketa horretarako: “Sufritu dutenei adierazteko gune seguru bat eskaintzea, herritar eta bizilagun gisa aitortza pribatu bat eskaintzea, eta hautsitako harremanak berreraikitzea (nahi eta ahal dutenek)”.

Pertsona horiekin topaketak egiteko orduan, argi eduki zuten diskrezioa behar zutela eduki, hots, grabaziorik gabekoak behar zutela izan, eta aldi berean, “toki goxo eta eroso batean”.

Nolanahi ere, hasieratik, oztopo batekin egin zuten aurre: Urnietan, artean, ez da ikerketarik egin giza eskubideen urraketen biktimak nortzuk diren zehazteko, “bizitzaren eskubidearen urraketen biktimak badaude nolabait identifikatuta, baina beste guztiak ez”.

Argituz elkarteak proposatutako sailkapenari jarraiki, bi motatako pertsonekin antolatuta zituzten topaketak: “Giza eskubideen urraketak pairatu dituztenak (biktimak) eta beste sufrimendu batzuk pairatu dituztenak (ez dira biktimak)”. Alde horretatik, elkarrizketetara gonbidatu zituzten pertsonak “bizipen aldetik, aniztasun bat islatu” izan zitezen saiatu ziren.

Topaketen parte-hartzaile guztiak harremanak bereziki zaindu zituztela zehaztu dute, “modu ez inbaditzailean hurbilduz eta beharrezko jarraipena eginez gonbidapenari telefono deien edo enkontru informalekin bidez”.

Prestatzen zituzten galdetegiek eremu pertsonaletik gogoeta bultzatzea zuten xede, “herrian eragina izan dezaketen hainbat

"TOPAKETA HAUEK ESPAZIO EROSO ETA GOXOAK IZAN DIRA ASKATASUNEZ HITZ EGITEKO"

faktore ere landuz. Biktimazio prozesuaz aparte, horren aurrean sortutako erresilientzia eta gainditze-historiak ere berreskuratu nahi ziren”.

Era horretan, hiru hizketa-ildo finkatu nahi izaten zituzten. Lehenik, gerturapen pertsonala: parte-hartzen zutenen aurkezpena, eta “gertaeren testuinguruarekiko gerturapena, elkarrizketatuari gehien eragin dioten gertakariaren inguruko solasaldia”. Bigarrenik, biktimen errealitatearen inguruko: “Biktimei egin beharreko aitortza moten inguruko (eta horretarako eragile ezberdinen rola), elkarrizketatuak bizi izandako edota nahiko lukeen aitortzaren ingurukoak, eta, biktima eta sufritu duten pertsonen arteko harremanen ingurukoak”. Eta hirugarrenik, memoria eta oraina: “Herriko giroaz, gertatutakoak eta egungo egoeraz gogoea sustatu, eta aurrera egiteko herritarren gaitasun eta erresilientzia prozesuen inguruan solasaldia”.

Bederatzi pertsonekin, topaketak

Taldeak jakinarazi duenez, bederatzi pertsonekin (zazpi gizon, bi emakumezko) egin dituzte topaketak, 2020-2022 epean. Zehaztu duenez, pertsona gehiagorekin egin zuten kontaktua, “baina arrazoi ezberdinengatik ez zuten gonbidapena onartu. Hala ere, gonbidapena, eta oro har, ekimena eskertu eta balioetsi dute denek”. Taldeak erantsi du jakitun dela sufritu duen edo biktima den jende gehiago dagoela Urnietan, “baina momentuz ez da lortu pertsona gehiago identifikatzea”.

Elkarrizketatutako pertsonen testigantzak giza eskubideen

urraketa desberdinen arabera sailkatu dituzte. Bi ataletan, hain zuzen. Batetik, osotasun fisiko, psikiko eta moralerako eskubidearen urraketen atalean, lau pertsonak torturak, tratatu txarrak edo zigor anker, gizagabe edo umiliagarriak salatu dituztenak.

Bestetik, pertsonen aurkako mehatxu larrien eta jazarpen-indarkeriaren atalean, honako pertsonak sartu dituzte: “egoera edo mehatxu larrien ondorioz beren bizitzak edo osotasun fisiko/psikikoa arriskuan izan dituzten pertsonak, beren ideiak, lana, erantzukizunak edo jarra politikoak, lanbidea edo gizarte jarduerak zirela eta, edo aurreko ezaugarriak zituzten pertsonen senideak izategatik, jazarri, beldurrarazi eta eraso egin dituzten pertsonak”.

Bigarren atal horretan hain zuzen ere, zazpi pertsona elkarrizketatu dituzte: “bizkartzaina eramane dutenak (3 pertsona) eta agintarien edo segurtasun-indarren jazarpena, larderia eta mehatxuak (4 pertsona)” jasan dutenak.

Taldeak gogorazi duenez, elkarrizketa horietan “giza eskubideen urraketa ez diren baina sufrimendua eragin duten egoera ezberdinak ere azaleratu dira: harremanen haustura, kartzelako bizipen mingarriak, kartzelaratze mehatxuak, bizipen gogorrek utzitako ondorio psikologikoak...”.

Prozesuaren lehen ondorioak

“Herrian gertatutako sufrimenduari hurbilketa bat” besterik ez duela egin adierazi du Urnietako Bizikidetzaren taldeak. “Bizipen hauek ez dira Urnietan gertatutako guztiaren isla, eta pertsona askoren sufrimendua

dago oraindik entzungo duen norbaiten zain”.

Alde horretatik, “bidea ez da hemen bukatzen”, aitortu du taldeak. “Asko dago egiteko errekonozimenduen bidean. Hasteko, bizitzaren eskubidearen urraketen biktimak eta beren familien egoera ezagutzeko garrantzitsua da, haien sufrimendurekiko aitortza ere sustatuz herri mailan”. Horrekin batera “osotasun fisiko, psikiko eta moralerako eskubidearen urraketak eta jazarpen biolentzia bizi izan duten beste herritarrei ere beren bizipena partekatze eta eurei ere errekonozimendua emateko aukera luzatzea beharrezkoa da”.

Azkenik, taldeak adierazi du herriko pertsona orori “entzute prozesua zabaltzea komenigarria” litzatekeela, “sufritu duten pertsonak bere historia ere parteka dezaten, nahi izanez gero”.

Urnietan, biktima eta sufritu duten herritar guztien aitortza lortzeko asko geratzen dela aitortu arren, txostenean islatutako prozesua ere balioan jarri nahi du taldeak, “eta bertatik ateratutako lehenengo ikaskuntzak partekatatu”.

Taldeakideak sinetsita daude “ikaskuntza horiek hurrengo etapa eta pausuetara ere lagungarri izan daitezkeela”.

Hiru ikaskuntza, etorkizunari begira

Entzute prozesu guzti horretatik bereziki hiru ikaskuntza aipatu nahi ditu taldeak: sufrimendua isilean eramaten dute askok, anitza da sufritu duten pertsonen taldea, eta, elkar entzuteko espazioen beharra dago.

Sufrimendua isilean eramateari dagokionez, taldeak zehaztu du pertsona hauetako askok

ez dutela “bere inguruan konstatzen pairatu zutena, arrazoi ezberdinengatik (gainditua dutelako, ez dutelako nahi etiketarik jartzea, hurbilenekoei sufrimendua ekiditeko...). Joera hau ikusteak pentsarazten digu gure bizilagun, ezagun edo lagunek ere antzeko bizipenak izan ditzaketela, guk ezer jakin gabe”.

Bestalde, “jatorri, ideologia, lanbide, adin ezberdinetakoak” dira sufritu duten pertsonak. “Sufrimendu zehatz bat jasateagatik ez du esan nahi ideologia zehatz bateko pertsonak direnik. Estereotipoak gainditu behar ditugu”.

Azkenik, taldeak garbi konstatatu du Urnietan elkar entzuteko dagoen beharra. “Topaketa hauek espazio eroso eta goxoak izan dira askatasunez hitz egiteko. Uste dugu parte hartu duten pertsonen balio izan diela epairik gabeko entzute aktiboa topatzea beren bizilagunengan. Guretzat ere ikaskuntza baliotsua izan da: entzuten ikasi dugu, eta entzundako bizipen gordinek guregan ere mugitu dute zerbait. Enpatian sakondu dugu topaketa hauei esker, euren egoera hobeto ulertzen dugu orain. Aberasgarria izan da guretzat ere”.

Taldeak erronka nagusitzat jo du “elkar entzuteko espazio hauen esperientzietan sakontzea”. Sakonketa hori, “hainbat modutara garatu daiteke. Adibidez, bizipen ezberdinak izan dituzten pertsonen arteko topaketak sustatuz, iraganeko etsaitasun logikak gaindituz elkar ulertzearen eta elkarren minak aitortzearen bidez. Eragile ezberdinok lagundu dezakegu bide horretan, bakoitzak bere aukera eta muga arabera”.



Etxean bezala... Amazonian!

David Segurado Iriondo etxean bueltan da egun hauetan, Claudia emaztea eta Mathilde alaba txikia lagun; mende laurdena joan da, dagoeneko, jaioterria atzean utzi eta Peru bitzta egiten hasi zela

Andoni Urbistondo URNIETA

Amazonia eskualdean eta Lima Peruko hiriburuan ezagutzen ez duten hotzarekin egin dute topo David Segurado Iriondo urnietarrak, eta bere familiak, Claudia Torres-Sovero emaztea eta Mathilde, Tite alaba txikia, lau urtekoa. Alaba jaio zenetik bisitak ugaritzen saiatu dira David eta Claudia, txikiak Urnietan bizi diren aiton-amonak, izeba-osabak eta beste lehengusuekin aste batzuk pasatzeko. Urnietara iritsita gurasoek hartu zuten lehen lana Tite-rentzat neguko arropa erostera joatea izan zen, ez baitauka jantzi egokirik hiruzpalau graduko tenperatura jasateko. David aita, aldiz, pozik egon da hotzaren sentazioarekin arnastuta, lana egiten duen Amazonia oihanean bero hezea baita agintari.

Euskal Herriko gazte asko bezala, eskalada eta mendiari esker ezagutu zuen mundua David Seguradok. 2000 urtean Amerikako gailur garaiena, Aconcagua igotzeko abenturan murgildu zen mendira joaten zen koadrilarekin. Urnietan zeukan egunerokoak ase ez, eta hilabete batzuk lehenago abiatu zen Hego Amerikara. Mendiko espedizioa bukatu zuen, baina ez zuen bueltako hegazkinik hartu. Hara eta hona ibili zen hilabete batzuk, etxean aurretutako 3.000 dolarrekin, eta halako batean Cuscon, Peruko Andeetako hiriburuan finkatu zen.

Turismoa eta Amazonia lotzen hasi zen, logistika kontuetan aurrena. Enpresa batek oihan itxian aterpe bat eraikitzeke agindua eman zion, eta han egon zen, lau hilabete luzez, arroz zaku batekin, bakar-bakarrik: "Bakarrik, gizakiei buruz ari

naiz. Animalia asko zeuden oihanean, pizti zenbait ere bai". Jaguar batekin hartu-eman berezia izan zuen Seguradok egun pare batez. Nornahi beldurtzeko moduko pasadizoa umoretsu kontatzen du David-ek, jaguarraren urruma irudikatzen duen bitartean.

Lau hilabete gogor haietan asko ikasi zuen urnietarrak: irauten, naturaren oztopoei aurre egiten, bere burua antolatzen... "Ez zen erraza izan, erabat inkomunikatuta bainengoen. Irrati bat zuten herri txiki batera iristeko ordu piloa ibili behar nintzen, eta beldurra ematen zuen ibai emaritsu bat zeharkatuz".

Peruko Amazoniak 780.000 kilometro koadro ditu. Euskal Herria, gure aberriaren tamaina 35 bat aldiz. Harekin maitemindu zen betirako David, eta bertan topatu zuen, urte batzuk geroago, bere bizitzako giza maitasuna: Claudia Torres-Sovero. Tropikoko biologoa, ikasketez, baina ekosoziolegoa, jardunez, bere ahotan. Hegazti behatzaile aparta delako, baina baita Amazoniako jendartearen ahalduntze ekimenean sustatzaile nekazekin ere. Bikoteak hirugarren beso bat du bere egunerokoan, lanean jarduteko: droneak.

Mundu berri bat

Dronek mundu berria ireki zuten David eta Claudiarentzat. Ezezaguna, aurrena. Haien erabilpenaz informazio gutxi zegoenean, formazio ikastarorik gabe. Hain-

**DRONEEK
MUNDU BERRIA
IREKI ZUEN
DAVID ETA
CLAUDIARENTZAT**

besterako, David bera izan zela Peru osoan droneak gidatzeko baimena lortu zuen lehenetako pertsona. Ondoren ikasleak trebatzen jardun zuen, eta droneak Amazonian segurtasunez erabili ahal izateko software bat ere garatu zuen enpresa estatubatuar batekin elkarlanean.

Titulua poltsikoan, lanean hasi zen, hainbat bezerorekin: meztaritzaren enpresak, Peruko Gobernua bera Amazoniako herri-tarrak ahalduntzen droneen erabileran, Amazoniako oihana ilegalki erretzen zuten gaizkileen kontrako jazarpena... Horiek guztiak lan profesionalak izan dira, baina pertsonalak ere asko garatu ditu bikoteak. David-ek eta Claudiak Gobernuaren lur sail baten kontzesioa dute laino basoan, San Ramon hiritik gertu (Chanchamayo eskualdea, Limatik zortzi bat ordura errepidez). 40 hektarea ditu, eta bertako landaredia eta fauna ikuskatu eta zaintzen dute. Tximu iletsuaren irudiak grabatu zituzten munduko lehenak izan ziren, droneei esker, hiru urte atzera, eta horien ikerkuntza osatzen ari dira Ingalaterrako Manchester hiriko unibertsitatearekin elkarlanean egun.

Claudia irakasle lanean aritzen da, Amazoniako herri-tarrak ahalduntzen, "haiek hezten: Amazoniako oihanaren kontserbazioa etorkizunari begira funtsezkoa dela erakusten saiatzen gara". Izan ere, ezaguna da Amazoniako oihanean egiten den zuhaitz

**CLAUDIA IRAKASLE
LANEAN ARITZEN DA,
AMAZONIako
HERRITARRAK
AHALDUNTZEN**



Lan profesionalak eta pertsonalak garatu ditu bikoteak, droneekin. SEGURADO





David Segurado Iriondo urnietarra, Claudia Torres-Sovero emaztea eta Mathilde alaba San Juan plazan. AIURRI

mozketa masiboa. Horren aurka egiten dute tinko Claudiak eta David-ek, eta bertako biztanleei oihana kontserbatzeak dakartzan onurei buruz mintzatu: "jendea behartsu samarra da, eta zuhaitz mozketak berehalako etekina suposatzen du askorentzat. Gu beste bizimolde batzuk erakusten saiatzen gara, mozketa masiboa saihestuz". Bitxikeria moduan, Claudiak bertakoak ikasteko pedagogia bitarteko garrantzitsuena bideoak direla dio: "Liburuekin saiatu ginen, baina azkar jabetu ginen ez zirela oso liburu zaleak. Bideoekin, aldiz, sekulako erraztasuna zeukaten, eta horiek dira gure heziketaren bizkarrezurra".

Hilabetea bukatu arte etxean

Hirukoteak hilabete osoa pasako du Urnietan, Daviden gurasoekin: "Mathildek lau urte ditu, eta azkena etorri ginenean haur txikia zen oso. Orain Marian eta Amador amona aitonekin denbora asko pasatzen du, eta gustura ikusten zaio". Hainbestera, Tite-k amoni eta aitona esaten diela Marian amonari, eta Amador aitonari. David berari deitzeko ere aita hitza erabiltzen du txikiak. Urnietan

**GOZATU EDERRA
HARTU ZUEN ALABAK
ADARRAMENDIN,
ELURRA ZER DEN
EZAGUTU BAITZUEN**

egingo duten hilabetean ez daukate asmo berezirik, Daviden esanetan: "Etxekoekin egotera etortzen gara, eta egiten duen eguraldia eta hotzarekin, etxe bueltan ibiltzen gara asko".

Miarrizera egin zuten osteratxoa, eta Donostiako Aquarium-a bisitatzen ere izan ziren, itsas faunako zaleak direlako oso. Adarramendi ere zuritu zuen pasa den astean, eta Tite txikia Urnietako mendi kuttunera eraman zuten. Gozatu ederra hartu omen zuen, besteak beste Liman eta Amazonia oihanean ez delako elurrik egiten. Tite-k Urnietan zapaldu zuen elurra lehen aldiz bere bizitza laburrean. Bestelakoan etxetik ibili dira, Marian amonak prestatutako gutuziak dastatzen: babarrunak, txerrikiak (Perun zaila omen da kalitate onekoak lortzea), lagunek emandako gaztak... Daviden koadrilarekin ere afaritxo batzuk eginak dira David eta Claudia.

Datorren astean egingo dute buelta Peru aldera, Madrilen, Espainiako hiriburuan egun batzuetako geltokia egin ostean (Claudiak bertako Autonomia Unibertsitatean egin zuen maitutza). Ez dira epe luzeko planak egin zaleak, baina momentuz

**HILABETEA URNIETAN
EMAN OSTEAN,
LASTER DA FAMILIA
OSOA BERRIRO
PERU ALDEAN**

etorkizun gertua Perun, Lima eta Amazonia oihana artean ikusten dute Davidek eta Claudiak. Hainbat proiektu dituzte abian, eta haien garapenak lan dezente ekarriko dio bikoteari hurrengo urteetan.

Tiburoi-balearen jarraipena egiten ari dira Peru iparraldeko kostaldean, Itsaso Barean. Nazioarte mailako ekimena da, Ekuador eta Kolonbian ere aritu nahiko luketelako. Claudiari dagokionez, ikerketa abiatu du beste hainbat irakaslerekin Amazoniako komunitate batekin, kultura-nortasuna eta ekoturismoa generoaren ikuspuntutik aztertzeko. Peruko Madre de Dios eskualdeko Ese'Eja del Infierno komunitatea aztertzen ari dira, hain zuzen ere. Ekimen hauetan elkarlan hitzarmena dute hainbat unibertsitatekin, Ingalaterrako Manchester hirikoarekin, eta Amerikako Estatu Batuetako Wake Forest unibertsitate ezagunarekin (Ipar Karolina estatuan kokatzen da). Elkarlan hori da bikotearen finantzazio iturri nagusia, baina euren ekimenak Euskal Herriko edo Europako erakunde edo unibertsitateen begietara iristea ere nahiko lukete, finantzazio iturri berriak lortze aldera.

Erreportaje honi esker zer edo zer lortzen badute, ezin hobe! Eta bestela ere bai. Bi hamarkada luze Amazoniaren bihotzean ibili denak ez baitu ezer gehiagoren beharrik bizitza bete izateko.

arruti

pasteleria

Etxeko obradorea

Enkarguak jasotzen ditugu

Egunean Behin 14D

denboraldi berriko babeslea

Babeslea:

Zumea 18, ANDOAIN

943 593 777

“Bidea jaitsita elkarri besarkatu ginen, eta Amaia ere gurekin zela sentitu genuen”

NIEVES GIL ETA LUCIA GUICHOT AMAIA AGIRREREN KIDEAK EMFKO ALPINISTA TALDEAN Urtebete da Amaia Agirre alpinista urnietarra Patagoniako Fitz Roy mendian hil zela, eta bere omenez Supercanaleta bidea igo dute mendizaleek

Andoni Urbistondo URNIETA

Ostiral honetan beteko da lehen urtea. Urnieta astindu zuten berriak iritsi ziren Argentinako Patagoniatik, Fitz Roy mendi magaletik. Elur jausi batek harrapatuta desagertu ziren Amaia Agirre herriko alaba eta Iker Bilbao durangarra. Aste batzuk atzera, 2023ko udazken bukaeran, Espainiako Mendi Federazioko Emakume Alpinisten taldean Amaiaren kide izandako bi lagunek Supercanaleta bidea osatu dute munduko hormatar ederrenetako batean (3.405 metro). Hechokoa da Nieves Gil (Huesca),



Amaia Agirre. FEDME

eta madrildarra Lucia Guichot. Fitz Royen bizitako momentu hunkigarriak gogoratu dituzte Aiurri-rentzat.

Nolatan aukeratu zenuten Fitz Roy mendia, eta Supercanaleta bidea?

Nieves Gil: Bat-batean sortutako asmoa izan zen, ez aurrez pentsatutakoa. Halaxe sortu zen, eta

"AMAIAREN OROITZAPENA BETI EGON ZEN PRESENTE IBILBIDE OSOAN"

NIEVES GIL

halaxe joan ginen hara. Fitz Royk motibazio sentimental handia dauka guretzat, bertan Amaia lagun mina hil zelako iaz, eta horrek eman zigun azken bulzadatxoa. Kosta zitzaigun erabakia hartzea, Amaiari gertatutakoa gogoan, baina aurrera egin genuen.

Lucia Guichot: Garbi genuen Chalten aldera joango ginela, eta han erabaki ze bideri ekin. Toki magikoa da hura, eta Supercanaleta guk daukagun mailara egokitzan da, ondo moldatzen da gure dohainetara. Amaiaren oroitzapena beti egon zen presente guran. Espedizio bukaerako bidaian Amaiarekin egon ginen elkarrekin Nepalen, eta Fitz Roy horman saiatzea berezia zen guretzat.

Zein oroitzapen duzue Amaia gogoan?

N.G.: Nahi edo gustuko zuen bizimodua zeraman. Bere zoriontasuna lehenetsi zuen, eta hori

"SENTIKORRA ZEN, IREKIA, SORTZAILEA, ETA, BATEZ ERE, OSO GERTUKOA"

LUCIA GUICHOT

bidaiatuz eta eskaladaren bitartez lortzen zuen, duin bizitzeko behar zuen lan orduak bakarrik eginez. Lagun on-ona zen, oso gertukoa.

L.G.: Oso pertsona sentikorra zen, irekia, sortzailea, eta, batez ere, oso gertukoa. Elkarri masajeak ematen pasatzen genuen denbora asko, eta horrek harremana sendotzen du. Heriotzak hain gertutik kolpatzen nauen lehen aldia da, niretzat, eta hausnarketa sakona eragin du nigan. Momentua bizi zalea zen, gaurkoa gaur eta biharkoa bihar. Etortzen zena hartu eta aurrera. Lan finko eta bizitza eroso bat edukitzeko aukera izan zuen, baina horri uko egin eta unean uneko zoriontasuna lehenetsi zuen beti.

Supercanaleta bidea osatu eta jaitsi ostean une hunkigarriak bizi zenuzuten...

N.G.: Hala da. Italiarren arrakalatik jaitsi ginen, eta Amaia eta Iker hil ziren gunera iritsi ginen. Oso une hunkigarria izan zen, baina berezia eta polita ere bai. Elkarri besarkatu ginen, eta fisikoki bi baginen ere, hiru geundela sentitu genuen biok.



Lehen urteurrena

Amaia Agirre eta Iker Bilbao

Naturak tinko eta goizegi bere magalean jaso zaituzte zuen bizi-indarra ta poztazuna guran bizigai bilaka dadila.

2023/01/19 49°16'33.5" S 73°02'09.1" W

Maitasunez Senideak eta lagunak

Cerro Chalten
Via Afanassieff



AIURRI

Bigarren partida jarraian, kanpoan

ESKUBALOIA Leizaran Lanbroa tabernak Euskadiko Senior Emakumezkoen lehen mailako 11. jardunaldiari ekingo dio, bigarren itzuliri hasiera emango diona. Aurreko asteburuan Eraiken taldearen kantxan garaipena (24-32) eskuratu ostean, bigarren partida jarraian dute etxetik kanpo. Oraingoan, Berango taldearen aurka. 3. eta 4. postuan dira bi taldeak, saikapenean.



BURUNTZALDEA IKT

Garaipena, Hernanin

IGERIKETA 4x50 libre erreleboko proban Iñaki García, Miren Sarobe, Iker Gorostegui eta Garazi Etxeberriak osatutako taldeak lortu zuen garaipena. Kopa eder bat eskuratuta itzuli ziren, beraz, Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak. Aurreko larunbatean infantil, junior eta absolutu mailako kideak Hernaniko XXV. Igeriketa Sarian parte hartzen aritu ziren.

Futbola, Urnietan, igandean

FUTBOLA Igande honetan, bi partida jokatuko dira Urnietako futbol zelaietan: Jubenil Gorengo mailan, Urnieta-Trintxerpe (10:00). Eta, segidan, Emakumezkoen Gorengo mailako Urnieta-Orioko (11:50). Gorengo mailako Kadeteak eta Gorengo mailako gizonezkoak Aretxabaletan eta Lasarte-Orian ariko dira, hurrenez hurren.



UKE



Barrenetxea IV. ORIAMENDI

Kutxabank Masters Erremonte Txapelketa

Urtarrilaren 27an hasita, Oriamendiko pilotaririk onenak hartuko dute parte Galarretan

Erredakzioa URNIETA

Aste honetan aurkeztu dute Kutxabank Masters Erremonte Txapelketaren 14. edizioa. Txapelketa honetan, Oriamendiko pilotaririk onenek hartuko dute parte. Enpresak adierazi bezala, buruz buruko partidatan "partaideek beraien trebetasun guztiak erakutsi beharko dituzte txapelaren titulua lortu nahi badute".

Erremonte zaleentzat, hona hemen txapelketaren egutegiaren aurrerapena: urtarrilaren 27an (larunbata) abiatuko da, 16:30ean hasita. Eta, hurrengoak, honakoak: otsailaren 3an (larunbata), 16:30ean; otsailaren 9an (ostirala), 18:00etan; otsailaren 17an (larunbata), 16:30ean; eta, finala, otsailaren 24an (larunbata), arratsaldeko 15:30ean hasita. Txapelketa osoa Hernaniko Galarreta Jai-Alai frontoian jokatuko da.

Sarrerren salmenta

Binakako finaleko akatsak behar konpondu nahi dituzte. Berrikuntzak iragarri dituzte, antolatzaileek: "Salmenta eta kudeaketarako metodologia berria txertatuko dugu. Ohiko zaletuei, erraztasunak eskaintzea du helburu". Zaletuak, berriro ere, garrantzitsuak izango dira.



AIURRI

Amurriotik Xativara, Movistarrekin

TXIRRINDULARITZA Junior mailako ziklo-kros txapelketan bosgarren postua lortu ostean, Movistar taldearen prestaketa-saioak burutzeraz abiatu zen Irati Aranguren Andoaingo Txirrindulari Eskolako kidea. Mundu mailako puntako taldea da Movistar, eta Aranguren haien artean aritza pozteko moduko albistea da. Urte osoan egin duen lanaren saria, finean.



UKE

Garrantzi handiko garaipena

FUTBOLA Gizonezkoen Gorengo mailako taldeak lehen itzulia 6 gol sartuz amaitu du. Beharra bazuten, eta azkenerako hiru puntuak etxean geratu ziren. Garrantzitsua zen Urnietako lehen taldearentzat garaipena eskuratzea. Atzean uzi dute Lengokoak taldea, eta bosgarren garaipenari esker borrokari helduko diote. Larunbatean, Lasarte-Orian ariko dira, Ostadarren aurka (17:30).

Saskia, Allurralden

Partida bakarra, Allurralden. Larunbatean, 09:00tan: Imaz Plastigaur-Aresko. Infantil mailako neskek.

Jubenilak, Ubitarten

Larunbat arratsaldean, bi partida: Euskalduna B-Segura B (16:00), eta Euskalduna-Ordizia Ohorezko maila (18:00).

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 19

ANDOAIN Txotx garaia

Gaztaña eta Mizpiradi sagardotegi denboraldi berriaren irekiera. *Urtarrilaren 19an hasita.*

ANDOAIN Erakusketa

Jon Juarez ilustratzailea. *18:30, irekiera ekitaldia. Bastero.*

URNIETA Lehiaketa

Antia literatur lehiaketan izena emateko epea zabalik dago. *Oinarriak: Urnieta.eus.*

ANDOAIN Matrikulazioa

Galardi Udal Haurreskolaren azken matrikula epea zabalik dago. Izen-ematea, argibideak: Bastero. *Azken eguna: Urtarilak 20.*

LARUNBATA 20

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berriena, "Ez gara jaitsiko" izenburukoa. *16:30, 19:00. Bastero.*

URNIETA Txotx garaia

Elutxeta sagardotegiaren denboraldi berriaren irekiera. *Urtarrilaren 20an hasita.*

IGANDEA 21

URNIETA Antzerkia

"Laika" haur antzerkia. Xirriquiteula konpainiaren eskutik. *17:30, Sarobe.*

Puska Biltzea Andoaingo Buruntza auzoan, hilaren 27an

Axeriek neguko ospakizunetan lehena egingo dute, datorren urtarrilaren 27an. Mozorro festa da, auzoz auzo burutzen dutena. Aurtengoan Buruntza auzoan barrena murgilduko dira, 2015eko eta 2019ko bisitaldiak errepikatuz. Goizetik, beraz, baserriz baserri ibiliko dira. Izena emateko, e-posta da bidea: andoaingoaxeri-dantza@gmail.com.



Porrotx, Marimotots eta Pirritx, disko berriaren aurkezpenean. TXINTXARRI

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berriena: "Ez gara jaitsiko". *16:30, 19:00. Bastero.*

ASTEAZKENA 24

URNIETA Txotx garaia

Altuna sagardotegiaren irekiera. *Urtarrilaren 24an hasita.*

OSTEGUNA 25

ANDOAIN, URNIETA Plenoa

Osoko bilkurak. *19:00, Udaletxea.*

OSTIRALA 26

URNIETA Txotx garaia

Eula sagardotegiaren irekiera. *Urtarrilaren 26an hasita.*

Santa Ageda bezperako kantu-erronda, Urnietan

Kantazaun taldearen ekimenez, Santa Ageda bezperako ohitura biziberrituko dute Urnietako kaleetan. Kantu erronda otsailaren 4an izango da, igandearekin. Goizeko 11:30etik 14:00etara ariko dira. Aurretik, bi entsegu-egun deitu dituzte. Urtarrilaren 23 eta 30ean, hurrenez hurren, Kiroldegiko erabilera anitzeko aretoan 18:30ean hasita.

LARUNBATA 27

ANDOAIN Puska Biltzea

Neguko ospakizunetan lehena, Axerien eskutik. Goizean hasita landa eremuko baserri eta etxeetan ibiliko dira, dantza giroko ospakizuna eskainiz. *Buruntza auzoa.*

IGANDEA 28

ANDOAIN Antzerkia

"Anbotoko Mari" antzerkia, bideo-animazioa, interakzioa eta musika biltzen dituen antzezlan multimedia da. *12:00, Bastero.*

Santa Ageda bezperako kantu-erronda, Andoainean

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren eskutik, ahotsak presatatzeko entsegu bikoiza: urtarrilaren 30ean, asteartearekin, eta urtarrilaren 31n, asteazkenarekin, Ambrosia Olabide egoitzako sarrera nagusian, iluntzeko 20:00etan hasita. Kantu-erronda otsailaren 4an izango da, arratsaldeko 18:00tan Dr. Huizi kalean hasita.

ZINEMA


**ANDOAIN****BASTERO**

Los que se quedan
Ig, 21. 19:30.
Asti, 22. 19:30, 22:00.
Thabo
Ig, 21. 17:00.

Yo, capitán
Lar, 27. 19:30, 22:00.
Ig, 28. 19:30.
Asti, 29. 19:30, 22:00.
El arca de Noé
Lar, 27. 17:00.
Ig, 28. 17:00.



SINOPSISIA

**Los que se quedan (The Holdovers)**

Zuzendaria: Alexander Payne. **Aktoreak:** Paul Giamatti, Dominic Sessa, Da'Vine Joy Randolph, Carrie Preston, Gillian Vigman, Tate Donovan, ... **Herraldea:** AEB (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia, drama. **Iraupena:** 133 min.

Giamatti, Oscar sariaren bidean

Paul Hunham, eskola amerikar ospetsu bateko irakasle kaskagorria, Gabonetako oporretan campusean egotera behartuta dago, nora joan ez duten ikasleez arduratzeko. Bizikidetzak ezohiko lotura bat

sortuko dio, bereziki birekin. Alde batetik, bere traumak dituen mutil buruargiarekin, eta, bestetik, Vietnamen seme bat galdu berri duen eskolako sukaldeko buruarekin. Giamatti Oscar sariaren bidean da.



andoainDARRA
euskaraz



Agustin Valdivia alkatea, milizianoen zenbait seniderekin: Lurdes Intxausti, Xole Agirre, Kontxi Arratibel eta Carmen Arratibel. AIURRI

Milizianoak gogoan

Brunet-eko langileak, Sorgin Dantza, Musika Banda, Lasarteko zirkuitua... Oria auzoa eta auzotarren bizimodua deskribatzen duten iraganeko hamalau argazki edo horma-irudi erraldoi ikusgai zeuden. Berria batu zaie, 36ko Gerran aritutako auzoko milizianoen alde

Xabier Lasa LASARTE-ORIA

Oriako eta Andoaingo milizianoak biltzen dituen argazkia zintzilikatu zuten Oriako auzoan, urtarrilaren 14an egin zuten ekitaldian. Miliziano horiek, Buruntza eta Txaldatxurreko fronteak lehenbizi, eta handik aurrera Bizkaiko fronteak adrezez defendatu zituzten, batzuek bizia emanaz eginkizun horretan, gainera. "Justizia sozialean sinesten zutelako defendatu zuten Errepublikak armak eskutan zituztela", adierazi zuen Islada Ezkutatuak elkarteko Joxea Muguruzak. Horma-irudia ikusgai dago, geroztik.

Islada Ezkutatuak elkarteko kideak ez ezik, Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak ere hitza hartu zuen, Karmengo kaperan egin zen ekitaldian. Lasarte-Oriako txistularien taldeak eta Joseba Tapiak musika ipini zioten ekitaldiari.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Beñat
Zorionak Beñat, Urtarrilaren 18an betetzen duzu urte bete jaio zinela. Muxu haundi bat amona Begoña eta aitona Mikelen partetik!!!



ANDOAIN

Amaia Errazkin Ezeiza
Urtarrilaren 27an, 27 urte beteko ditu Amaiak, muxu handiak amona Miren Olazabalen partetik.



URNIETA

Zorionak Aritz!
Urtarrilaren 21ean 12 urte beteko dituzu! Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.

Urte askuan!

- www.aiurri.eus
Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:**
619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:**
943 300 732.

Rosa Luxemburgo batailoiko kideak, Oria Urnieta zenean



Aurreko igandeko ekitaldiko argazki-bilduma eta bideo-sorta Aiurri.eus gunean ikusgai daude. AIURRI

1986a bitarte Urnieta herriaren ardurapean izan zen Oria auzokoak dira argazkian agertzen diren miliziano gehienak. Nolanahi ere, badira garai hartan Andoain bizi ziren bizpahiru lagun, hala nola, Pako Gil Agirre eta Eusebio Iartza (Bizkaiko frontean hila). Ahaztu gabe, gerraostean andoaineratu zirenak, hala nola, Daniel Aldaz eta Joakin eta Inazio Arratibel

anaiak. Hona argazkian ageri diren milizianoak:

Atzeko lerroan, ezkerretik hasita:

Faustino Garro Eizmendi; Antonio Jimenez; Jose Martinez Adarraga; Pedro Jose Eizmendi Garro; Joakin Arratibel Zuaznabar; Pako Aldaz Otamendi; Atanasio Etxaniz Añorga; Joakin Garro Eizmendi;

Tomas Alkorta Adarraga; Jeronimo Ganboa Lopez; Inazio Arratibel Zuaznabar; Juanito Cano Inza; Pako Gil Agirre; Juan Romo Zulaika; ezezaguna; ezezaguna; Teofilo Uria Cano; Atanasio Barrena Goñi; eta, Rafael Izagirre Elizegi.

Bigarren lerroan, erdian:

Luis Goiaran Olasagirre; ezezaguna; Alfonso Alvarez

Velloso; ezezaguna; ezezaguna; ezezaguna; ezezaguna; Jose Mari Txintxurreta Arnegi; eta, Fernando Jimenez Lopez.

Lurrean eserita:

Ezezaguna; Markos Olasagasti; Ramon Muga Urdanpilleta; Daniel Aldaz Otamendi; Eusebio Iartza Etxeondo; ezezaguna; ezezaguna; eta, Pedro Gabilondo Eziguren.

Urnieta odol-emaileei aitortza-ekitaldia

Datorren astelehenean, odola emateko aukera berria izango dute urnietarrek. Data finkatu dago, honezkeroko. Eguna baliatuko dute Urnieta odol-emaileei aitortza adierazteko. Gaztelekuan izango da, arratsaldeko 17:00tan hasita. Urnieta odol-emaileen fideltasuna eta eskuzabaltasuna balioan jarriko dute, ekitaldian.

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Urtarrilak 22, astelehena. URNIETA
16:30-20:30.
Plazido Muxika.



MERKATU TXIKIA

ENPLEGUA

Bi mutilen zaintzailea behar dugu. Andoain, astelehenean ostiralera 12:20etatik 14:30etara 11 eta 13 urteko bi mutileri bazkariko gestioan laguntzeko: **650 34 11 08.**

PROTAGONISTA



Lanean burubelarri dabil Xabier Altuna, hilaren 24rako den-dena prest egon dadin. AIURRI

“Gertutasunez egiten dugu lan”

XABIER ALTUNA ALTUNA SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 24an egingo du txotx irekiera Altuna sagardotegiak, bere sorreraren 120. urteurrenean. Ateak zabaldu aurretik, lanean ari dira guztia txukun-txukun izateko

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Orain dela 120 urte, 1904. urtean, ireki zituen lehenengoz sagardotegiko ateak Altunak. Harrezkero, sagarrari estuki lotuta bizi izan da familia, erreferente bilakateraino. Orotara, lau belaunaldik hartu dute, mende pasatxoan, Altunaren gidaritzan. Xabier Altuna dabil orain kudeaketa-lanetan. Urtarrilaren 24an hasiko dute txox-denboraldia.

Aurten, txotx-irekiera izango da Urnietan, Altuna sagardotegian.

Aurten, lehen aldiz, Urnietan ere txotx-irekiera egingo dugu, herriko Udalak bultzatuta eta Sagardogile Elkartearen laguntzarekin. Lau sagardogileak elkartu ginen, alegia, Oianume, Elutxeta, Eula eta Altuna. Ados ginen proposamenarekin. Lau urtez egiteko asmoa dago, aldi-

ro-aldira, sagardotegi ezberdin batean. Altuna sagardotegia hasiko da. Datorren asteazkenean, urtarrilaren 24an izango da irekiera-ekitaldia. Hitzordu xumea izango da, Urnietan ere sagardoa badela eta, historikoki, betidanik egon dela erakusteko. Gonbidatu bereziak egongo dira, Nerea Arruti eta Imanol Ansa.

Prentsaurrekoa izango da, 10:30ean. Bertan izango dira Jorge Segurado Urnietako alkatea eta Olatz Mitxelena Gipuzkoako Sagardogile elkarteko koordinatzailea. Jarraian, Aukeran Dantza Konpainiak erakustaldia egingo du eta Txanbolin Txistulari Bandak jarriko dio doinua ekitaldiari. Upelera gerturatu eta lehen zurruta dastatzeko aukera izango dute gonbidatuek, hamaiketakoarekin batera.

Urtarrilaren 24an zabalduko ditu bere ateak Altunak. Zeintzuk dira, denboraldia hasi aurretik, azken orduan izan ohi dituzuen zereginak?

Azken pintaketa-lanetan gabilta egunotan, baita garbiketan ere, txukun-txukun uzteko. Aurten, aldaketa txikiak egin dizkiogu sagardotegiari, esate baterako, parrilla berri dugu. Apur bat handixeagoa da orain. Etxe ondoan, aparkalekua handitu dugu, nahiz eta jende asko trenean etorri, nahi duenak eroso izan dezan bertan autoa uztea. **Honezkero, erreserbak egin nahian, deika eta deika al daukazue sagardozaleak?**

Gabonen aurretik jaso ohi ditugu lehenengo deiak. Batez ere martxo aldean izaten ditugu erreserba gehien, larunbat eguerdirako. Gabonek iraun bitartean nabarmenki jaisten dira deiak

eta, behin urtea hasita, berriro hots eta hots hasten da telefonoa. **Azken urteetako joerari erreparatuta, asteburuek jarraitzen al dute izaten arrakasta gehien?**

Joerak berdin jarraitzen du. Larunbat eguerdirako deitzen du, gehienbat, jendeak. Aste barruko erreserbak jaitsi egin dira azken urteetan, baita gauekoak ere.

Bezeroaren asmoaren arabera, lasai eta patxadaz gozatzeko, hobe da aste barruan etortzea. Parranda-giroa nahi baldin baduzu, hobe aste-burua.

Kopuruari dagokionez, ekoizpen oparoa izan al duzue denboraldi honetako uztan?

Gutxi gorabehera, beti kopuru berdintsua ekoiztu ohi dugu. Etxeko sagarrari dagokionez, Urtebi Txiki, Urtebi Haundi, Goikoetxea eta Moko erabiltzen ditugu, batez ere. Hortik aurrera, beste mordoxka batekin ere egiten dugu lan. Sagar-kopuruari dagokionez, urte ona izan da, nahiz eta aurreikuspenetara ez iritsi, zuhaitzean bertan dezentte usteldu baita. Dena dela, joan den denboraldia baino hobea izan da.

Nola definituko zenuke, aurten, zuen kupeletatik dastatuko den sagardoa?

Aurtengoak, orokorrean, joan den urtekoak baino alkohol gutxiago dauka, eta gorputza ere txikiagoa du, baina zapore ederra du. Prest dago, jada, sagardozaleentzat!

Ekoizten duzuen sagardotik zenbat doa kupeletara eta zenbat botiletara?

Proporzionalki, askoz sagardokopuru handiagoa bideratzen dugu botiletara. Gehienbat, jattetxeetara, tabernetara, denda txikietara eta elkarte gastronomikoetara bideratzen dugu, Urnietan bertan, baita inguruko herrietan ere: Nafarroa iparraldea, Tolosaldea, Goierri, Andoain, Donostia... Bezero partikularrak ere baditugu. Online bidez erosteko aukera ere bada. Gaur gaurkoz, Sagardogileen elkartetik eskuratu daiteke, nahiz eta, aurki, gure web orrialde propioa kaleratuko dugun.

Sagardotegiko jardunaz gain, Urnietako beste hainbat hitzordutara iristen da Altuna sagardotegia.

Gertutasunez eta gertukoekin egiten dugu lan Altuna sagar-

dotegian. Hori horrela izateko, zuk aipatu bezala, herriko eragileekin aritzen naiz elkarlanean. Nire aldetik, ahalik eta laguntza handiena bermatzen saiatzen naiz. Adibidez, txotx mugikorra daukagu, otordu herrikoietarako eta sari gisa ere bildatzen ditugu, tarteka, Altuna sagardobotilak.

1904. urtetik martxan, 120 urteko ibilbidea du Altunak. Egun, zurea da sagardotegiaren gidaritzan. Kostatzen da, oraindik, belaunaldi gazteak sagardotegiaren kudeaketan ikustea.

Hori da zehazki gure familiak etxe honetan daraman denbora. Olaberriako birramona neska-me-lanetan aritu zen hemen ondoko baserri batean, eta, Eskoriatzako birraitona, berri, trenbideko eraikuntza-lanetan zebilen. Urnietan ezagutu zuten elkar eta 1904. urtean mugitu ziren gerora gure etxe bilakatu den horretara. Garai hartan, abereez zein baratzez arduratzaz gain, sagardoa egiten zuten, baina oso kopuru txikian. Aiton-amonek joerari eutsi zioten, ondoren, baita gurasoek ere. Denborarekin, profesionalizatzen nahiz espezializatzen joan da gure familia. Gaur egun, sagardorekin, soilik, egiten dut nik lan.

Egun, badira batzuk, baina zaila izaten ari da lekuko-aldaketa ematea. Orain bost bat urte hasi zen ematen belaunaldi aldaketa, eta beste horrenbestean jarraituko du. Urrutira joan gabe, badira batzuk, baina ez ditut asko ezagutzen. Adineko jende asko dago segidarik gabe.

Hitzordu bereziarekin, irekierarekin, alegia, ekin diozue txotx-denboraldiari. Noiz arte izango dute aukera herriarrek zuen sagardotegira gerturatzeke?

Apirilaren 28an itxiko ditugu ateak, igandearekin. Sagardotegi-denboraldiaren kronologia tradizionala mantentzen dugu, oraindik.

Interesa duenak, nola egin erreserba?

Gehienak telefonoz jasotzen ditugu, 943 55 49 17 zenbakira deituta. Baina, online bidezko erreserbek ere indarra hartu dute, Sagardogileen elkartearen webgunean. Animatu dadila jendea, laster baino lehen irekiko baitutu ateak Altuna sagardotegiak!